

TXOKOLATINAK

Amak txokolatina pakete bat erosi zuen eta Paulori eman zion.

- Paulo, mutil handia zara jada eta gorde zeuk txokolatina paketea. Baina kontuz ibili: ez jan denak batera.
- Afalorduan, honela esan zion Paulok amari:
- Ama, gaur gauean ez naiz gose...
- Ez zarela gose? Ea, zenbat txokolatina jan ditzuzu?
- Denak, ama.
- Denak? – esan zion amak kezkatuta, Paulok beti betetzen baitzuen emaren esana-. Ez al dizut esan, bada, denak batera ez jateko’
- Eta halaxe egin dut, ama – erantzun zion paulok, laño aurpegia erakutsiz-. Ez ditu denak batera jam. Banan-banan sartu ditut ahoan, bata bestearen atzetik. Zeuk esan bezala!
- Paulok egia zioen. Errua amak zuen, ez baitzion garbi azaldu zer nahi zuen. Eta amak onartu egin zuen. Helduek, batzuetan, ez dituzte gauzak behar bezala azaltzen.
- Barkatu, Paulo – esan zion amak- . Nik zera esan nahi nizun: txokolatina guztiak gaur ez jateko, biharko eta etziko batzuk uzteko...

SILVANA CARNEVALI (moldatua)

1. Nork erosi zituen txokolatinak?

Amak erosi zituen.

Paulok erosi zituen.

Amonak erosi zituen.

2. Zergatik ez zen gose Paulo afalorduan?

Buruko mina zuelako.

Txokolatina guztiak jan zituelako eta beteta zegoelako.

3. Esan **AMAK** edo **PAULOK** esan zuen.

Ez jan txokolatina guztiak.

Bana-banan sartu ditut ahoan, bata bestearen atzetik.

4. Osatu esaldiak, bi hauetako bat idatziz: **guztiak** ala **batzuk**.

Amak esan nahi zuen lehenengo egunean txokolatina
jateko.

baino ez

Paulok ulertu zuen txokolatina
egunean, baina banan-banan.

jan ahal zituela lehenengo

5. Idatzi **EGIA** ALA **GEZURRA** den.

Paulok amaren esana betetzen du normalean.

Paulok ez du inoiz amaren esanik betetzen.

Amak Paulori leporatu zion errua.

Amak onartu egin zuen ez ziola Paulori behar bezalka azaldu eta barkamena eskatu zion.